



LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL BILERA. AYUNTAMIENTO.

Organoa: Udalbatza.

Organo: Pleno.

Batzarra: Ohikoa.

Sesión: ordinaria.

Deialdia: Lehenengoa.

Convocatoria: primera.

Eguna: 2021.01.21.

Día: 21.01.2021.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Hora: 19:00 horas de la tarde.

Tokia: Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan.

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka.

Bertaratuak:

Asistentes:

Alkatea: Ladis Satrustegui Alzugaray jn.

Alcalde: D. Ladis Satrustegui Alzugaray.

Zinegotziak:

Concejales:

Maitane Rodriguez Etxabide and.

Dña. Maitane Rodriguez Etxabide.

Iban Garro Alzuri jn.

D. Iban Garro Alzuri.

Maidier Arrieta Tapia and.

Dña. Maidier Arrieta Tapia.

Iratxe Batiz Barzena and.

Dña. Iratxe Batiz Barzena.

Mattin Etxabide Gartzia jn.

D. Mattin Etxabide Gartzia.

José Luis Echegaray Andueza jn.

D. José Luis Echegaray Andueza.

Ione Fagoaga Echarte and.

Dña. Ione Fagoaga Echarte.

Iban de Prado Echepeteleku jn.

D. Iban de Prado Echepeteleku.

Esteban Irazoqui Irazoqui jn.

D. Esteban Irazoqui Irazoqui.

Jose Maria Portu Ochoteco jn.

D. José María Portu Ochoteco.

Idazkaria: M. Jose Larrayoz Ariztegui and.

Secretaria: Dña. M. José Larrayoz Ariztegui.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago udalaren web orrian zintzilikatzeko.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal.

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.

1.- APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN.

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du,
2020ko abenduaren 23ko akta

*El Pleno aprueba, por unanimidad, el acta
de la sesión celebrada el día 23 de diciembre de
2020.*

2.-LESAKAKO OSASUN ZENTROKO IDATZIA.

Lesakako Osasun Zentroko zuzendariak
bidalitako idazkia irakurri da, eta honako testu hau
duten puntuak eskatu dira:

-“Gaur egun hutsik dauden langile
medikuen plantilla osatu; Lesakako goizeko
lanpostu bat eta Berako %40ko pediatria plaza
bat.Langileak leialtzen saiatuz eta hurrengo
erretiroak kontuan hartuz-

-Lesakako mediku erhabilitatzailearen
kontsultan arreta berreskuratzeko eskatzea,
Nafarroako gainerako oinarrizko eremuetan egin
den bezala.

-Arantzako kontsultarako eta larunbat
goizerako administrari lanaldi erdi sortzea.

-Lesakako osasun-zentroaren eraikina
handitzea, oinarrizko eremuaren egungo
beharretara egokitzeko eta egungo helderiak
ezarritako baldintzak bete ahal izateko”.

Aho batez, erabaki du:

1.)Udal honen babesa agertzea eskaerari
eta bat egitea eskarian azaldutakoarekin.

2.-)Akordio hau Lesakako Osasun
Zentroari eta Osaunbideari jakinaraztea.

3.- ENARA ARAMBURU ALZUGARAY ANDREAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA.

2020ko abenduaren 28an (4095. sarrera
Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko
eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau

2.- ESCRITO DEL CENTRO DE SALUD DE LESAKA.

*Se da lectura al escrito remitido por la
directora del Centro de Salud de Lesaka solicitando
los puntos cuyo texto integro es el siguiente:*

*“-Completar la plantilla de profesionales
médicos vacantes a día de hoy, una plaza de
mañanas y una plaza al 40% de pediatría en Bera,
intentando fidelizar a los profesionales y teniendo
en cuenta l previsión de próximas jubilaciones.*

*-Reclamar que se retome la atención eb la
consulta del médico rehabilitador en Lesaka, como
se ha hecho en el resto de las zonas básicas de
Navarra.*

*-Crear la plaza solicitada de administrativa
a media jornada para el consultorio de Arantza y
los sábados a la mañana.*

*-Ampliar el edificio del Centro de Salud de
Lesaka, para adecuarla a las necesidades actuales
de la zona básica y poder cumplir los requisitos
impuestos por la actual pandemia”.*

Por unanimidad, se acuerda:

*1.) Mostrar el apoyo de este Ayuntamiento a
la solicitud y sumarse a lo expuesto en la misma.*

*2.)Remitir este acuerdo al Centro de Salud
de Lesaka y a Osaunbidea.*

3.-APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR DÑA. ENARA ARAMBURU ALZUGARAY.

*Examinada la instancia presentada con
fecha 28 de diciembre de 2020 (entrada nº 4095 en
el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno*



LESAKAKO UDALA (NAFARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Enara Aramburu Alzugaray andreak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: haritz amerikar eta gaztain, akazi eta bertzeko zuhaitzen entresaka, Uhartea parajea. Moztu behar den azalera 2.194,65 m² –koa da. Katastroko 6. poligonoko 69, 47, 83 eta 78. partzeleei dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2020/27).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza eta tasa jarri beharko ditu, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza eta tasarik jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketen kalteez kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koa izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hariiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko

acuerda por unanimidad:

1.) *Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por doña Enara Aramburu Alzugaray para realizar una entresaca de roble americano y huroneo de castaños, acacias y otras especies en el paraje de Uhartea. La superficie de corta es de unos 2.194,65 m². Corresponde a la parcela 69, 47, 83 y 78 del polígono 6 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2020/27).*

2.) *Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicarlo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.*

Para ello tendrá que constituir la fianza y la tasa establecida, cuyo importe le será indicado. Los particulares que no vayan a utilizar camiones o maquinaria pesada para los trabajos a realizar, no tendrán que depositar esta fianza ni la tasa, siempre que manifiesten por escrito que esto será así y que se harán cargo de los daños que pudieran producirse. No cumplir con esto se considerará infracción de la norma, y se aplicará la siguiente multa: 3 € por cada metro cúbico solicitado, siendo el mínimo de la multa 300 €, y haciéndose cargo del resto de los daños que pudiera ocasionar.

3.) *Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se les dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo del propietario del aprovechamiento.*

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

4.) *La apertura de nuevas pistas requiere de*

berariazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finka batzuk komunalak ageri direla udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

4.- ALBISTUR KALEKO 61. ZENBAKIKO JABEKIDEEN ERKIDEGOAK SUSTATUTAKO XEHETASUN-AZTERLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Alkatetzaren 2020/11/25ko 523/2020 ebazpenaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion Albistur kaleko 61. (3. poligonoko 145. lurzatia) zenbakiko jabekideen erkidegoak aurkeztutako xehetasun-azterlanari, sarbidea egokitzeko eta igogailua jartzeko (Licobrme/2020/48).

Dokumentua Jose Miguel Gascon Saldaña arkitektoak idatzi zuen eta 2020/09/23 aurkeztu zen (sarrera-erregistroko zenbakia: 2020/2989).

Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientea jendaurrean jarri da 20 eguneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 286. zenbakian 2020/12/1 leian argitaratutako ediktuen bidez.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.) Albistur kaleko 61. (3. poligonoko 145. lurzatia) zenbakiko jabekideen erkidegoak sustatutako xehetasun-azterlana behin betiko

autorización expresa del Ayuntamiento.

5.) Comunicarle que algunas de las fincas figuran como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de las mismas.

4.-APROBACION DEL ESTUDIO DE DETALLE PROMOVIDO POR LA COMUNIDAD DE PROPIETARIOS DEL EDIFICIO DE LA CALLE ALBISTUR, 61.

Por resolución nº 523/2020 de la Alcaldía del día 25/11/2020, se aprobó inicialmente el estudio de detalle promovido por la comunidad de propietarios del edificio de la calle Albistur,61 (referencia: Licobrme/2020/48), para adaptación de acceso e instalación de ascensor (parcela 145 del polígono 3).

El documento ha sido redactado por el arquitecto José Miguel Gascón Saldaña y presentado el día 23/09/2020 (nº de registro de entrada 2989/2020).

Conforme a lo dispuesto por el artículo 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el expediente ha sido sometido a información pública durante el plazo de 20 días mediante publicación en el Boletín Oficial de Navarra nº 286 el día 11/12/2020.

Durante dicho plazo no se ha presentado ninguna alegación.

Por unanimidad, el Pleno acuerda:

1.) Aprobar definitivamente el estudio de detalle promovido por la comunidad de propietarios del edificio de la calle Albistur,61.



LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

onartzea.

2.) Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.) Legegintzako Foru Dekretuaren 72. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuari igortzea, 10 eguneko epean, behin betiko onetsitako xehetasun-azterketaren ale bat, egindako txostenen kopiaekin batera.

4.) Erabaki hau sustatzaileari jakinaraztea.

2.) *Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*

3.) *De acuerdo a lo establecido por el artículo 72 del Decreto Foral Legislativo, remitir al Gobierno de Navarra, en el plazo de 10 días, un ejemplar del estudio de detalle aprobado definitivamente junto con copia de los informes emitidos.*

4.) *Que se notifique el presente acuerdo al promotor.*

5.-ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi guzietan pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkura gaur arte Alkateak emaniko ebazpenen zerrenda (567/2020 ebazpenetik 584/2020 ebazpena arte eta 1/2021 ebazpenetik 18/2021 ebazpena arte). Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduen 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udaltzaren eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihuan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

9.- OSOKO BILKURAREN KONTROL-JARDUERA.ESKARI ETA GALDERAK.

Ez dira izan.

5.- CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA.

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía, desde la última sesión hasta hoy (desde la nº 567/2020 hasta la nº 584/2020 y de la nº1/2021 a la nº 18/2021). A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

9.- ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO.RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se formulan.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hiru minutuak direla, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

Siendo las diecinueve horas y tres minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretaria, certifico.

